Herri Aldizkaria
otamotz
2005eko iraila 109. alea



Lau lagun, lau istorio:
euskaldun berriekin solasean

KOLABORAZIOA: GOTZON ARANBURU
ZUEK BAI JAKIN!: LUIS MARI SEGUROLA
IZERDI PATSETAN: JUANJO BERGARA, GOLFAREN ATZINDARI HERRIAN

Urola Garaiko Garapenerako Agentzia

Zumarraga • Legazpi • Urretxu • Ezkio-Itsaso

Enpresa Ekimen Berriei Babesa

△

Eskualdeko Enpresa Txiki eta Ertainei Laguntza
Informazioa - Bitartekotza

△

Merkataritzari Laguntza Teknikoa

△

Langabetuentzako Enplegu Zerbitzuak

△

Prestakuntzarako Informazioa

943725829 (Zumarraga) - 943737183 (Legazpi) - 943726164 (Urretxu)

Ekoscan®
ek
MEJORA AMBIENTAL
INGURUMEN HOBEKUNTZA
IHOBE 0018-05

LLOYD'S REGISTER QUALITY ASSURANCE
ISO9001

ARGAZKI ZAHARRA



Luistarrek antolatzen zuten pala txapelketan, 50eko hamarkadan, ateratako argazkia. Ezkerretik eskubira: Esteban Barrena, Idiakez, Inazio Anduaga eta Jose Mendizabal.

Aldizkari honek **Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila** eta **Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura** eta **Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak** eta **Zumarragako udalak** emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea.
Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73.
Koordinatzailea: Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldua.
Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti.
Inprimategia: GOI DESIGN - Zumarraga
Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.
Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ATS
HARATEGIA URDAITEGIA
✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

colors
arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

KLIK ETA KLIK





Argazkiak Idoia Narbaizak atera ditu.

KLIK ETA KLIK











Lau euskaldun

Egun gutxi barru hasiko dute ikasturtea euskaltegietan eta, arrazoi ezberdinak bultzatuta, milaka lagun euskara bere egiten saiatuko dira. Euskara ikasten ari direnei eta dagoeneko ikasi dutenei euren ahalegina eskertzeko eta oraindik pauso hori eman ez dutenak animatzeko, Jorge Andueza, Pello Biain, Iñigo Garrido eta Lourdes Rodriguez euskaldun berriekin izan gara.

Pello Biain: "Euskara ikasteko maitasunezko harremana izan behar duzu berarekin"

Pello Biainen aitaren familia euskalduna da, baina euskararen katea berarekin etetekotan izan zen: aitonak apenas zekien gazteleraz, aita gazteleraz euskaraz baino hobeto moldatzen da eta Pellok apenas zekien euskaraz. Euskal munduarekin zuen harremana kulturaren eta politikaren bitartekoa zen. "Euskaldunen mundua kantuen bidez ezagutzen nuen. Bestalde, euskararen inguruan zegoen ideologiarekin, abertzaletasunarekin, ere harremana nuen".

Euskara ikasteko egin zituen lehen ahaleginak antzuak izan ziren. "Gaueskoletan eta euskaltegian ibili nintzen, mila ariketa egin nituen... baina ezinezkoa iruditzen zitzaidan, egunen batean, ikasitako aditz horiek ahotan jartzea".

Egun batean, ordea, euskara bere egin arte ez zuela amore emango erabaki zuen. "Taberna batzuetan lan egin nuen eta euskaraz hitz egiten zidaten pertsonei mesedez gazteleraz hitz egiteko eskatzeak sekulako amorrua ematen zidan. Bestalde, irakaskuntzan lan egin nahi nuen eta banekin horretarako euskara ikasi beharra nuela. Ikasketak bukatu eta soldadutza egin ondoren, erabaki sakona hartu behar izan nuen: hemen gelditu eta euskara ikasi edo kanpora joan. Gelditzea erabaki nuen".

Biainek bi urte eman zituen euskara ikasten, burubelarri. "Urtarriletik ekainera bitartean egunero bost ordu eman nituen euskaltegian. Arratsaldean, berriz, ariketak egiten nituen. Irailean Lazkaora joan nintzen, euskara ikasteko bertara joan behar zela esan baitzidaten. Garai hartan, *boom*-a izan zen: barnetegia ireki berria zen eta euskara ikasteko bermea zegoen".

Lazkaon urte eta erdi eman zuen. "Ordura arte euskaraz esaldi laburrak esateko gai nintzen soilik eta, bertan, EGA eta filosofia klaseak euskaraz emateko titulua atera nituen. Hilabete gogorrak izan ziren, neure buruari euskaraz egin behar nuela zin egin bainion. Hasieran, ostiraletan etxera itzultzen nintzenean, korapilo ikaragarria ekartzen nuen. Izan ere, gauzak adierazi nahia eta ezina oso gogorra da. Zumarragara etortzea eta erdaraz egin ahal izatea liberazioa zen".

Hiru helbururekin hartu zuen Pello Biainek horren konpromiso sendoa. "Euskaldunek euskaraz hitz egiteko duten eskubidea errespetatzeko, euskal kulturan murgiltzeko eta libreagoa izateko. Izan ere, hizkuntza bakarra badaukazu, hizkuntza horretan hitz egitera kondenatuta zaude. Bestalde, euskara ikasteko arrazoi sentimentalagoa ere banuen: aitaren familiaren aldetik euskararen katea nirekin hautsi zen eta horrek amorru handia ematen zidan".

Euskara ikasteko arrazoi sendoak eta gogoa izanik, ez omen zitzaion bereziki gogorra egin. "Zortea izan nuen, euskararekin maitemindu egin bainintzen. Zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta gehiago gustatzen zitzaidan. Gainera, ikasten nuena ahotan jartzen nuela ikusten nuen. Neureganatu nezakeela ikusi nuen eta betiko topikoak gainditu nituen: euskara oso zaila da, inoiz ez duzu hitz egingo euskaldun zahar batek bezala... Euskara ikasteko maitasunezko harremana izan behar duzu berarekin, gustatzen ez bazaizu jai duzu".

Gogoak eta bere izaerak lagundurik, berehala ekin zion ikasitakoa praktikan jartzeari. "Edozein hizkuntza ikasteko eta hitz egiteko lotsagabea izan behar duzu, futbol entrenatzaileak bezala. Gainera, Andoni Salamero eta Jose Luis Padron bezalako euskaldun zaharrekin elkartu nintzen eta hasieratik euskaraz egin nuen".

Biainen ustez, jendeak ez die euskara ikasten dutenei aparteko meriturik onartzen. "Ez dut uste jendea euskaldun berri batek egiten duen ahaleginaz konturatzen denik. Bestalde, maila batera helduta, jende asko ez da konturatzen euskaldun berria zarenik. Horrek euskara ikastea posible dela erakusten du".

Ikasketa ez omen da, ordea, euskaltegian amaitzen. "Euskararen mundua Lazkaotik irteten zarenean hasten da. Tituluak aterata nahikoa egin duzula pentsatzen baduzu, azalean gelditu zara eta euskara zimeldu egingo zaizu. Nik argi daukat ez dudala sekula bukatuko. Euskaldun zahar-berria naiz: 20 urte egingo du euskara ikasi nuela, baina oraindik neure burua euskaldun berri ikusten dut. Dena den, lanari esker euskararekiko harremana etengabea izan da eta horrek eragin handia izan du. Horrela ez bada, bakoitzak aurkitu behar du norbait euskaraz hitz egiteko. Jende askoren arazoa hori da, ez duela norekin euskaraz hitz egin".

Pellok oso argi du ahaleginak merezi duela. "Hizkuntzek harremanak egiteko balio dute eta hori oso polita da. Bestalde, beste giro batzuetan, euskal kulturan... sartzeko balio du. Gainera, askatasun handia ematen du: euskaraz edo gazteleraz egin erabakitzeko askatasuna ematen du. Merezi du, benetan".

berri, lau istorio



Euskara ikasteko hamar aholku

Testu hau Pello Biainek idatzi zuen duela urte batzuk. Euskaraz ez jakitetik filosofia klaseak euskaraz ematera pasa dela ikusirik, zaila izango da gai honen inguruko aholkuak emateko pertsona aproposagorik topatzea!

1.-Lehenik eta behin, ikas ezazu euskara benetan ikasi nahi duzulako. Hala ez bada, koherentea izan zaitez eta ez ikasi, euskarak maitale libreak nahi baititu, ez menekorik. Eta euskara ikasi beharra baduzu, (lana, titulua...) ikas ezazu euskaraz egin nahi duten pertsonekiko errespetu eta maitasunagatik. Horixe izango da argudiorik onena erdaraz egin nahi duzunean errespetu eta maitasun berberak eskatzeko.

2.-Hurbil zaitez euskararengana aurreiritzirik gabe, euskara beste edozein hizkuntza bezain ikasgarria eta mintzagarria baita: euskara ez da ez hobea, ezta txarragoa ere, ez da errazagoa ezta zailagoa ere: utz iezaiozu barreneraino sartzen oztoporik eta aurreiritzirik gabe.

3.-Eduki ezazu euskara (eta edozer) ezagutzeko jakinmina, jakinminez ezagutza gozagarri baita. Hala ez bada, euskara (eta edozer) aspergarria irudituko zaizu eta berehala gogaituko zara.

4.-Uste osoa izan ezazu zeure buruan eta sinets ezazu benetan euskara ikasteko gai zarela, hau da, lehenago edo beranduago eta kosta ahala kosta, zureganatuko duzula. Uste oso honek indar handia emango dizu unerik zailenetan. Hala eta guztiz ere, eramanezina egiten bazaizu eta sufritzen baduzu, uztazu eta lasai lo egizu.

5.-Gogoz ikas ezazu euskara: zenbat eta gehiago ikasi, orduan eta gogozkoago. Izan ere, euskara ikasteko bidean erdia atsegina da eta beste erdia ahalegina. Era berean, gutxi jakin arren, baloratu, gozatu eta handitu dakizuntxoa, horrela, euskara ez da izango falta zaizun zerbait, zure barruan haziz doan eta gero eta zureagotxoa den zerbait baizik.

6.-Kontuan hartu milaka ariketa egin beharko dituzula, baina euskara paperean zimeltzea nahi ez baduzu, izan zaitez lotsagabe euskara ahoratzeko orduan eta bila itzazu lagunak euskaraz mintzatzeko, horrela bakarrik ikusiko baituzu aurrera egiten duzula.

7.-EGA titulua edo eskuratu behar baduzu, ez ahaztu titulua lortu eta gero hasiko zarela benetan euskara ezagutzen eta zure barruan sendotzen eta bizitza osoa ez dela aski euskara (ezta erdara ere) osoki ikasteko. Eta ez zaitez harritu euskara ikasten duzunean erdara ere ikasten baduzu.

8.-Sar zaitez beldurrik gabe euskararen munduan: literatura, kantak, bertsoak... eta ohartuko zara euskara esker onekoa dela: zuk euskarari bizia ematen badiozu, euskarak bizia emango dizu. Bizi ezazu euskara eta euskarak biziko zaitu.

9.-Saia zaitez euskara ahalik eta ondoen mintzatzen, baina ez euskaraz perfektuki mintzatzen, perfekzioa jainkoen kontua baita. Erabil itzazu baliabide guztiak: hitzak ikusi, entzun, idatzi, asmatu, jolastu, sentitu, arnastu, laztandu...

10.-Goza ezazu euskarak eta erdarak eskainiko dizuten askatasunaz, askatauna hautatzeko ahalmenean bakarrik gauzatzen baita eta biek merezi dutelako zure askatasun eta maitasun mugagabeak.

Iñigo Garrido: "Eguneroko bizitzan ahal dudan guztia euskaraz egiten saiatzen naiz"

Iñigo Garrido ere urte askoan euskara ikasten aritu den herrikidea dugu. Garrido Euskal Herriko toki askotan aritu da lanean eta, hala, euskalki edo euskaraz hitz egiteko era ezberdinak ezagutzea egotzi zaio. Horrek nahastea ekarri badio ere, jakin izan du nahasketa zuzentzen, eta aise aritzen da orain euskaraz.

Zer harreman zenuen euskararekin ikasten hasi aurretik?

Gure familian, nahiz eta euskara ez egon gure bizitzan finkatuta, beti eduki dugu harremana. Nahiz eta orokorrean gaztelaraz mintzatu, beti zeuden euskaraz esaten zenituen hitzak edota esamoldeak... Horrez gain, senitarteko batzuk euskaldunak dira eta haiekin, nola edo hala, euskaraz hitz egin dugu txikitatik. Eskolan 6-7 urterekin hasi ginen ikasgai moduan euskara ematen. Nahiko garai txarra zen, irakasle gehienek ere ez baitzekiten euskaraz. Haiek ere euskaldun berriak izaki, sekulako nahasteak sortzen ziren.

Noiz erabaki zenuen euskara burubelarri ikastea?

17 urterekin eskola utzi eta lanean hasi nintzen. Lehenengo lana Leitzan izan nuen, bi urtez, eta han jende guztia euskalduna zen, bere bizitza guztia euskaraz egiten zuen. Niri sekulako amorrua ematen zidan euskaraz ondo ez jakiteak. Horrela, euskaltegian hastea erabaki nuen. Bi urtez aritu nintzen AEK-n eta harreman oso onak egin nituen. Irakasleak zoragarriak ziren eta hala nola euskara pittin bat ikasi nuen. Hori bai, ikasitakoa ahalik eta lasterren praktikan jartzen saiatzen nintzen. Bestalde, nire koadrilako gehienak euskaldunak dira eta laguntza handia eman zidaten. Asko eskertzen dut alde horretatik izan dudan laguntza, ikasitakoa, ahal bezain pronto ahotan jartzea ahalbideratu didalako. Badaude euskaldun zaharrak beti daudenak prest zuri laguntzeko. Hor dago koxka, ikasitakoa lehenbailehen ahoan jartzean.

Zer izan da gehien kostatu zaizuna?

Aditzak. Leitzan ikastean, hango hizkeraren berezitasunak ere neureganatu nituen. Gerora, Elorrion lan egitea tokatu zitzaidan, eta Elorriokoek beste hizkera bat darabilte. Gero Lekeition, Getarian, Donostian, Iruñean.... aritu naiz lanean, eta noski, leku horietan darabiltzatenak denak euskarak dira, baina leku bakoitzekoak bere berezitasunak dauzka, bakoitzak bere aditzak dauzka eta ohitura txarrak hartzen joan nintzen. Askotan nahasten nituen leku ezberdinetako aditz eta hizkerak. Hori guztia alde batera utzi eta euskara batua ikasten hastea asko kostatu zitzaidan. Gaur egun, oraindik ere, akatsak egiten ditut. Kriston nahasketa nuen buruan eta asko kostatu zitzaidan hori zuzentzea. Bi urte daramatzat Urretxuko euskaltegian ikasten, nahastea zuzentzeko.

Erabilgarria egin al zaizu gerora euskara?

Baietz esango nuke, gehienbat telebista ikusteko, irratia entzuteko, liburuak irakurtzeko... oso lagungarria da. Horrez gain, badaude euren bizitza euskara hutsean egitea erabaki duten pertsonak, eta nik uste dut haiei ere errespetua izan behar diegula. Nahiz eta hemen denok berdin pentsatu ez, elebitasun batean bizi garela argi izan behar dugu, eta hori errespetatu egin behar dugu.

Zein da orain euskararekin duzun harremana?

Eguneroko bizitzan ahal dudan guztia euskaraz egiten saiatzen naiz, nahiz eta zoritxarrez, nire gurasoekin adibidez, ezin dudan. Dena euskaraz egitea oso zaila da, Zumarragan euskararen egoera ez baita nahi genukeen bezain ona. Nahiz eta euskaraz jakin, normalean ez da erabiltzen eta asko kostatzen da lagun talde bat osatzean euskaraz hitz egitea. Hala ere, saiatzen gara, eta azkenaldian gehiago. Bestalde, askotan nire inguruan sortzen dira euskara erabili ezin dudan momentuak eta gaztelerara jo beharra izaten dut, baina hori aldatzea gure esku dago.

Zer esango zenieke euskara ikasi nahi bai, baina oraindik ere pausua ematera ausartu ez direnei?

Animatu egin nahi nituzke, joan daitezela denak euskara ikastera, oso baliagarria baita. Argi izan behar dugu, hemen biziz gero, elebitasun batean bizi garela, eta hori errespetatu egin behar dela, horrekin gozatu ahal izateko.

Lourdes Rodriguez: "Egunerokoan disfrutatzeko aukerak bikoiztu egiten dira"



Lourdes Rodriguez irakaslea dugu Gainzuri ikastetxean. Bere kasua azpimarratzekoa da, gutxi izango baitira hainbeste gogoz hainbeste lekutan euskara ikasten aritu direnak.

Zer harreman zenuen euskararekin ikasten hasi aurretik? Zer dela eta hartu zenuen euskara ikasteko erabakia?

Gaztetxoa nintzela, nahiz eta egoerak gazteleraz hitz egitera bultzatzen zuen; etxean, gure familian, beti izan dugu euskararen eta euskal kulturaren aldeko jarrera baikorra. Euskara ikastera gehienbat Euskal Herriak bizi zuen egoerak eta kontzientziazio kultural eta politikoaren gorakadak eraman ninduen. Horrela, gure gunean, eliza inguruan, sinesmenaren eta kulturaren inguruan gazte talde bat elkartzen hasi ginen, apaiza zelarik gidaria. Gure helburua, bai hizkuntzaren aldetik eta bai kulturalki heztea zen, gero era berean monitore gisa aritu ahal izateko.

Nolakoa izan zen euskara ikastearen esperientzia?

Giroak bultzatuta, gure nortasuna bilatu nahian, hizkuntza ikasten genuen aldi berean kulturalki ere janzten joan ginen: historia, etnografia, musika (Valverde, Knorr...)... Haien kantaldietan sortzen zen giroak, haien abestiek.... asko lagundu zuten euskararen inguruan sortu zen mugimendua indartzen. Basauriko San Migel auzokoa naiz eta han hasi nintzen euskara ikasten 15 urterekin. Apaiza genuen irakaslea eta klaseak gauero izaten genituen. Bizkaieraz hasi nintzen ikasten, eta horrekin batera, Labayru institutuko zenbait historialari eta etnograforen hitzaldi eta ikastaroetara ere joaten hasi nintzen. Derioko udako seminarioan izaten ziren jardunaldietan ere parte hartzen hasi ginen. Euskerazaleak elkartean ere aritu nintzen, Xabier Peña idazle tolosarra ere irakasle izan nuela. Bere klaseetan Castejanak idatzitako Iparragirreren bizitzari buruzko liburua lantzen aritu ginen. Nork esango zidan gero Urretxu-Zumarragara etorriko nintzenik bizitzera! Hori guztiaz gain, irakasleentzat Zornotzako eskolan antolatzen ziren larunbatetako ikastaro berezi batzuetan ere hartu nuen parte, EGA titulua ateratzeko. Gero, hizkuntza eskolan ere aritu nintzen, beste batzuen artean Koldo Mitxelena izan nuelarik irakasle. Zortea izan dut, euskal kulturan garrantzitsu izan diren pertsona askorengandik ikasteko eta ikasi ahala ingurukoekin, lagunartean, lanean... praktikatzeko aukera izan dudalako. Umeen irakasle gisa hasi nintzenez, beraiekin nire euskara landu eta hobetzeko parada izan dut. Bi seme izateak ere, asko lagundu dit euskaraz ikasten; hala etxean bertan euskaraz bizitzeko aukera baitut.

Zer egin zitzaizun zailena?

Alde batetik aditzak, baina beste alde batetik, euskaldun zaharrek duten kutsua, aberastasuna, esamoldeak erabiltzeko erraztasuna.... Ahoskera lantzea ere kostatu zait, bizkaitarra izanik, s-z akatsa zuzentzea kosta egiten baitzait. Hainbeste urte euskara ikasten aritu ondoren, oraindik ere, ikasteko asko dudala ikusten dut.

Zer da gehien gustatu zaizuna?

Gai eta ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko izan dudan aukera, edota hizkuntzarekin disfrutatzeko dudana, ze izugarri gustuko dut euskarak gauza sinpleak eta xumeak esateko dituen baliabide eta konparazioak, gauza oso ederrak esateko aukera ematen digutenak.

Eguneroko bizitzan zer harreman duzu euskararekin?

Eguneroko bizitzan dena euskaraz egiten saiatzen naiz. Ohiturak direla eta, askotan nahigabe irteten zait euskara. Nik zortea daukat, eskolan ere horretan baikabiltza. Euskara ez da soilik ikasteko tresna, baita eguneroko bizitzan erabiltzeko, harremanetarako edota herriko ekintzez gozatzeko. Euskara ikasita, eguneroko bizitzan disfrutatzeko aukerak bikoiztu egiten zaizkizu. Hizkuntza identitatearen zatia da, zure bizitza osatzen zoaz hizkuntzarekin.

Zer esango zenieke euskara ikasi nahi bai, baina oraindik ere pausua ematera ausartu ez direnei?

Lehenengo, euskara hemengo kulturaren zati oso garrantzitsua dela esango nieke, ezin duguna galtzen utzi. Ez dela nahikoa "ze zaila den" esatea. Ikastearekin batera norberak erabiltzen badu, eta ahalik eta gauza gehienetan begi eta belarrietatik euskara jasotzen saiatzen bada, euskara bizitzeko oso-oso baliagarria dela jabetuko da eta ez zaio oso zaila egingo. Ezin da itxaron zerbait jakin arte erabiltzeko, erabili ahala ikasten baitzoaz. Beti izango dugu dakitenen laguntza, zuzentzeko, animatzeko edota praktikatzeko.

Jorge Andueza: “Euskaldun zahar gehienek gutxi laguntzen dute”

Jorge Andueza "Pitu"-k euskara ikasgai izan zuen eskolan, baina ez zuen euskara menderatzea lortu. Hori dela eta, 19 urterekin AEKn izena ematea erabaki zuen. "Lagunak euskarazko ekitaldietara joaten baziren, nik ez nuen joaterik eta amorrua ematen zidan. Halako batean, Lazkaoko Maizpide Euskaltegian zegoen lagun batek euskaltegian izena ematera animatu ninduen. Goizean euskaltegira joaten nintzen eta arratsaldean aitarekin lanera. Askoz ere errazago, berehala, ikasiko nuela uste nuen. Hori dela eta, hurrengo urtean Lazkaora joatea erabaki nuen".

Bi ikasturte astelehenetik ostiralera Lazkaon eman zituen. "Azkenerako nazkatu eta utzi egin nuen. Orduan, bilatzen ari nintzena aurkitu nuen egunkarian: baserri batean ikasitakoa praktikatzeko aukera. Zestoako Sastarrain baserri-eskolan urtebete eman nuen".

Hiru urte barnetegian eman ondoren, Jorge Anduezak euskara maila ona lortu zuen eta erronka berria jarri zion bere buruari: unibertsitate ikasketak euskaraz egitea. "Neure buruari euskaraz ikasteko gai nintzela erakusteko, animatzaile soziokultural ikasketak egin nahi nituen; baina gizarte hezkuntza karreragatik ordezkatu zutela esan zidaten. Hala, unibertsitatean sartu nintzen".

Anduezaren ustez, euskara ikasi ondoren, euskaraz bizi ala ez hautatu behar da. Dena den, euskaldunberri batentzat ez omen da erraza euskaraz bizitzea. "Ezin duzu denekin euskaraz hitz egin. Niretzat oso gogorra izan da euskaldunekin hitz egitea. Izan ere, euskaldun zaharrak euskara maila oso altua ez duen euskaldun berriaz paso egiten du. Ezin dituzu guztiak zaku berean sartu, baina euskaldun zahar gehienek gutxi laguntzen dute. Gainera, oso gauza bitxiak gertatzen dira: herriko jendeak bertso saio batean ez agurtzea, esaterako. Zergatik? Bertso saio batean erdaraz hitz egitea gaizki ikusia dagoelako eta nirekin euskaraz hitz egiten ez dutelako izango zen...".

Dena den, Jorgek ez zuen amore eman eta euskaraz hitz egiteko modua topatu zuen. "Zuk zeuk bidea egiten ez baduzu, akabo. Beti euskaraz egiteko prest zeuden lagun batzuk topatu nituen eta horrek izugarri lagundu zidan. Gauza oso bitxiak gertatzen dira: Artizar aisialdi taldeko lagun batekin euskaraz egiteko ohitura hartu nuen eta bera bezain euskaldunak diren bere anaiekin, ordea, erdaraz egiten dut. Bere garaian, euskaraz egiten nienean erdarara pasatzen zirelako gertatu da hori".

Euskaraz egin ahal izateko, bertso eskolan izena ematea ere erabaki zuen. "Herrian non aurkitzen duzu giro euskalduna? Euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ez badituzu, zaila da euskaraz egitea. Hori dela eta, bertso eskolan sartu nintzen".

Jorge Anduezak hainbat esparrutan euskaraz bizitzea lortu du, baina ez guztietan. "Egunero ikasten da zer edo zer, baina gauza batzuk azaltzeko ahalmenik ez dut oraindik. Gai honi buruz, ordea, asko hitz egin dut eta ez zait kostatzen".

Zenbait egoeratan oraindik euskaraz egitea kostatzen zaion arren, lortutakoaz harro da, noski. "Euskara ikasteak beste perspektiba bat eman dit. Hizkuntza bat ikasten duzunean beste errealitate bat ezagutzen duzu eta zure pentsakera aldatzen da. Izan ere, erdaldunen eta euskaldunen pentsakerak ezberdinak dira. Orain badakit zer den norbaiti erdaraz egin beharrak amorrazioa ematea, esaterako. Garai batean, euskaldunak bi hizkuntza dituela eta solaskideak euskaraz ez dakienetan erdaraz egin behar duela pentsatzen nuen. Hizkuntzak ikastea oso aberasgarria da, hizkuntza ikastearekin batera bere kultura eskuratzen baituzu".

Hori dela eta, Anduezak erdaldun elebakarrak euskara ikastera animatu nahi ditu. "Euskara ikasteak merezi du. Izan ere, euskara ez dakitenek ezagutzen ez duten errealitate bat dago eta nahitanahiez beraien herrian bertan apur bat baztertuta daude: jende asko haurra izan ondoren euskara ikasten saiatu dela ikustea besterik ez dago. Aita-ama, aitona-amona, osaba-izeba... asko familiako haurrekin komunikatu ezingo diren beldur dira. Motibazioa oso garrantzitsua da".

Bertso eskolako miraria

Irailaren 30ean 2005-2006 ikasturtea hasiko da Urretxu eta Zumarragako Bertso Eskolan. Bertan izena ematen duten gaztetxoek, bertsotan ikastearekin batera, lagunak egiteko eta euskara lantzeko aukera bikaina izango dute. Lagun giro ederrean, bertso eskolan egiten ari diren lana laudorio ugari jasotzen ari da. Izan ere, herriko bertsolari gaztetxoek Gipuzkoako Txapelketa irabazi dute azken bi urteotan eta bertsopaper lehiaketetan hainbat sari irabazi dituzte. Gorka Azkarate irakaslearekin izan gara egiten ari diren lanaz hitz egiten.

Urretxu-Zumarragako bertso eskola duela 20 bat urte sortu zen Juanjo Sagastibeltzaren eta Iñaki Beitia zenaren ekimenez. Gorka Azkarate handik urte pare batera, oraindik umea zela, hasi zen bertso eskolan. "1988 inguruan hasi nintzen bertso eskolan, nire belaunaldiko hainbat lagunekin batera. Astean behin joaten ginen bertso eskolara, hasieran bertsoak idatziz egitera eta gero bat-batean. Guk ere eskolarteko txapelketetan parte hartu genuen".

Gorka Azkaratek ez du bertso eskola utzi ordutik. "Dedikazio handiagoarekin edo txikiagoarekin, beti hor ibili gara. Urte batzuetan gure eginbeharra herrian antolatzen ziren ekitaldietan kantatzea eta bertso saioak antolatzea izan zen. Klaseak eman ez ditugun urteetan ere, beti eman diogu zerbitzua herriari".

Duela bost bat urte, berriz, Urretxu-Zumarragako bertso eskolaren susperraldia hasi zen. "Hasteko, helduen bertso eskola martxan jartzea lortu genuen. Ondoren, Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkarteak haurren bertso eskola berreskuratzeko asmoa azaldu zuen eta horretan lagundu zigun. Izena eman zuten haurretako batzuek bertsotan egiteko gogo handia zuten eta horrek indar handia eman zigun. Talde polita sortu da".

Azkaratek Urretxu-Zumarragako bertso eskolak etorkizun oparoa duela uste du. "Egitura polita dugu eta mantenduko dugula uste dut. Gaztetxoak oso emaitza onak lortzen ari dira: azken bi urteotan Gipuzkoako txapelketa irabazi dute gaztetxoen mailan Goierrikoekin batera eta bertsopaperetan ere hainbat sari irabazi dituzte. Etorkizun ona dugula uste dut. Urte gehien daraman taldea oso talde polita da eta urtetik urtera asko ari dira hobetzen. Hasiberrien taldea indartu beharra dugu, baina urtero neska-mutiko berriak etortzen zaizkigula ere esan beharra dago".

Bertso eskolak etorkizun bikaina badu, bertsolari gaztetxoek zeresanik ez. "Bertsotan aritzea asko gustatzen zaie, urtetik urtera asko hobetzen ari dira eta eurek nahi duten tokiraino iritsiko dira. Jarraituz gero, oso gora heltzeko aukera dute".

Oraingoz, Urretxu-Zumarragako bertso eskola bertsozale askoren ahotan jartzea lortu dute. Izan ere, nork esango zuen duela urte batzuk bertso eskola honetako gaztetxoek Gipuzkoako txapelketa irabaziko zutenik? Gorka Azkaratek berak ere ez, seguraski. "Historikoki bertso eskola indartsu batzuk izan dira eta guretzat oso pozgarria da horien aurretik geratzea. Gainera, ez da batere normala eskolarteko txapelketa bi urtetan jarraian irabaztea".

Hona hemen bertso e

Uda honetan bertso eskolako gaztetxo guztiekin hitz egin dugu eta oso gustura dabiltzala esan digute. Egunen batean hauetakoren bat Txapelketa Nagusian parte hartzen ikusiko ote dugu? Oraingoz, azaroaren 26an Ederrena pilotalekuan jokatuko den finalerdia ikustearekin konformatu beharko dira eta ez da gutxi!

ANE AGIRRE
-11 urte
-6. mailako ikaslea
-Bi urte daramatzat bertso eskolan.
-Ikastolara izena emateko esku-orria heldu zen eta probatzea erabaki nuen.
-Hemen egin ditudan lagunak eta gure artean dugun giroa dira gehien atsegin ditudanak.
-Gustuko bertsolaria: Anjel Mari Peñagarikano.

MAIALEN AKIZU
-9 urte
-LHko 4. mailako ikaslea
-Lau urte bertso eskolan.
-Autoan joaten ginenean bertsoak abesten genituen eta aitak bertso eskolan izena ematea proposatu zidan.
-Gehien atsegin dudana gure arteko giroa da, baina baita meriendak ere.
-Gustuko bertsolaria: Lizasotarrak.

JONE ALBERDI
-10 urte
-5. mailako ikaslea
-Hiru ikasturte bertso eskolan.
-Aitak esanda izena eman nuen. Gustura etortzen naiz eta antzerkiak egitea atsegin dut gehien.
-Ez dut bertsolari bat bereziki gustuko.

ANTZIÑE ARANBURU
-12 urte
-1. DBHko ikaslea
-Duela lau urte hasi nintzen bertso eskolan, lehen urtean.
-Ikastolan bertso eskolan klaseak hasi behar zirela esan ziguten eta izena ematea erabaki nuen.
-Gehien atsegin dudana antzerkiak egitea da.
-Bertsolari guztiak atsegin ditut.

ANDER ARBULU
-10 urte
-6. mailako ikaslea
-Bigarren ikasturtea hasiko dut bertso eskolan.
-Telebistaz ematen zituzten bertsoak entzuten nituen eta izena ematea erabaki nuen.
-Irteerak eta klasean egiten ditugun jolasak atsegin ditut gehien. Bertso eskolan luzaroan jarraitzeko asmoa dut.
-Gogoko bertsolaria: S. Lizaso.

JON ANDER ARZELUS
-14 urte
-3. DBH
-Bigarren ikasturtea hasiko dut bertso eskolan.
-Telebistan ikusten zuena gustatzen zitzaidan eta izena ematea erabaki nuen.
-Gehien atsegin dudana antzerkiak dira.
-Gogoko bertsolaria: S. Lizaso.

IKER AZPEITIA
-9 urte
-5. maila
-Bigarren ikasturtea hasiko dut bertso eskolan.
-Aitak izen-emate orria jaso zuen eta izena ematea proposatu zidan.
-Gehien atsegin dudana klasetik kanpo jolasak egitea da.
-Ez dut bereziki atsegin dudan bertsolaririk.

JON ANDER CAMPOS
-9 urte
-5. maila
-Bigarren ikasturtea hasiko dut bertso eskolan.
-Bertsoak atsegin nituelako erabaki nuen izena ematea eta oso gustura nabil.
-Gehien atsegin ditudanak an-

skolako "dream team"

tzerkiak, bertsoak egitea eta meriendak dira.
-Bertsolari gustukoena: Sebastian Lizaso.

AMAIA ITURRIOZ
-12 urte
-1. DBHko ikaslea
-Lau urte bertso eskolan.
-Umetatik bertsolaritza asko gustatzen zaidanez, izena ematea erabaki nuen.
-Hemengo giroa eta kantatzea atsegin ditut gehien.
-Bertsolaria: Mendiluze.

MIKEL ITURRIOZ
-10 urte
-5. maila
-Bigarren ikasturtea hasiko dut.
-Bertsoak gustatzen zaizkidalako eta nire arrebak ere kantatzen duelako eman nuen izena.
-Bertsoak osatzea atsegin dut gehien, baina asmatzen ez dudanean amorratu egiten naiz.
-Gustuko bertsolaria: Anjel Mari Peñagarikano.

MANEX MANTXOLA
-13 urte
-4. DBH
-Lau urte bertso eskolan.
-Ikastolan bertso eskola aurkeztu zuten eta bertsoak gustukoak nituenez, etxean baimena eskatu eta izena eman nuen.
-Oso gustura nabil, barre asko egiten baitut eta ondo pasatzen baitut.
-Lizaso eta Iturriaga dira nire bertsolari gustukoenak.

MAIDER MARTINEZ
-9 urte
-4. maila
-Bigarren ikasturtea hasiko dut bertso eskolan.
-Maialen Akizuk bertso eskolari buruzko gauza asko kontatzen zizkidan, entzuten nuena gustatu egin zitzaidan eta izena ematea erabaki nuen. Ni ere oso gustura nabil.
-Giroa eta lagunak atsegin ditut gehien.
-Ez dut bereziki atsegin dudan bertsolaririk.

ASIER OLIVEIRA
-11 urte
-6. maila
-Bi ikasturte egin ditut bertso eskolan.
-Bertsoak gustatzen zaizkidalako eman nuen izena.
-Antzerkiak dira gehien atsegin ditudanak.
-Ez dut gustuko bertsolaririk.

JONE ORUESAGASTI
-8 urte.
-4. mailako ikaslea

-Bigarren ikasturtea hasiko dut bertso eskolan.
-Telebistan bertsoak entzuten nituen eta, gustatzen zitzaidanez, bertso eskolan izena ematea erabaki nuen.
-Gustura nabil bertso eskolan. Dena gustatzen zait eta irakasleekin ondo moldatzen naiz.
-Ez dut gustuko bertsolaririk.

EDURNE PLAZAOLA
-12 urte
-1. DBH
-Hasieratik bertso eskolan.
-Gauza berri bat probatzearren eman nuen izena.
-Oso ondo pasatzen dut, nahiz eta saioetan urduri samar jartzen naizen.
-Gustuko bertsolaria: Maialen Lujanbio.

Ferretería BRAVO, S.L.

-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIAK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA



Gotzon Aranburu

Hanburgesak eta Coca-Cola atletentzat

Beti pentsatu izan dut euskaldunok janarekin eta sukaldaritzarekin daukagun obsesioa ez dela normala. Gaur egun ez da hainbeste entzuten "hemen bezala ez da inon jaten", baina horren ordezko bihurtu dira "etxeko jana da sanoena" edo "dieta mediterraneoa da osasungarriena" bezalakoak. Londresen aste bete egin duen orok darabiltza hitzetik hortzera esaldiok, dogma bihurtuta. Sinestuta gaude Inglaterra edo Estatu Batuetako biztanleek zerrikeria hutsak irensten dituztela mahaian eta suerte izugarria daukagula hemengo jakiak dastatu ahal izateagatik.

Egia. Suerte galanta da, eta berebiziko plazerra, bazkari ederrak egitea, batez ere lagunarte onean egiten baditugu, baina besterik ez. Ez da, esaterako, ekintza kulturala, sinestarazi diguten bezala. Ez behintzat telebisioa ikustea, perretxikuak bilatzea edo automobilez bidaitzea baino gehiago. Izan ere, ekintza horietan guztietan janzten dugu zerbait geure burua; lehoien ohitura sexualak zeintzuk diren jakiten dugu, "amanita" onak eta txarrak bereizten ikasten dugu eta El Ejidon inondik inora negutegi asko egon behar duela jabetzen gara. "Soldadutzan militarrak zer nolako aluak diren konturatu ninduan" esaten duenik bada. Alegia, ia gizaekintza eta egoera guztietatik ikasten da zerbait, eta, beraz, neurri horretan dena litzateke kultura. Baina neurri horretan bakarrik.

Hipokratesek esan omen zuen jaten duguna garela. Jakinaren gainean edo jakin gabe, mediku greziarraren pentsamendua zeharo gure egin dugu. Eta konbentzituta gaudenez gure dieta eta gure jakiak inon diren egokienak direla, eta babarrunak hanburgesak baino milioika aldiz hobeak direla gorputzarentzat eta izpirituarentzat, izugarrizko lanak hartzen ditugu sukaldean, gero eta gehiago zabaltzen ari diren jaki aurreprestatuei edo MacDonaldsei mespretxu ezkuetaezinez begiratuz.

Bada ez, ez gara estatubatuarrak baino sanoagoak, ez eta inglesak baino kultuagoak, horiek gurina eta "fish and chips" erruz irensten duten arren. Kontua zera da, guk, euskaldunak, hain ondo jaten dugunez (bai behintzat 36ko gerra ondorengo gosetea bukatu eta gero) eta haiek, esaterako alemanak eta holandesak, hain gaizki elikatzen direnez, zahartzarora iritsitakoan gu enborrak bezain lerden egon beharko genuke, eta haiek porru eginda. Baita zera ere. Bi adibide esanguratsu, nire ustez, jarriko ditut.

Donostian Munduko Beteranoen Atletismo Txapelketak jokatu berri dira. Hirurogeita hamar eta laurogei urteko aitona ingeles eta estatubatuarrek majo egin dute korrika, baita domina gehienak eskuratu ere. Egia da Afrikako atletik ez dela Donostian azaldu, horrelako bidaietan eta egonaldietan xahutzeko dirurik ez daukatelako, eta haiek (oso bestelako elikatze-ohiturekin) hemen izan balira emaitzak ezberdinak izango liratekeela. "Ingeles eta amerikar agure horiek sano jango dute, ordea" pentsatuko du norbaitek. Bada nik neure begiekin Donostian ikusitakoa ez zen hori; Anoetako estadio ondoko karpa erraldoian saltxitxak, hanburgesak eta sandwichak zirela atletek gehien jaten zituztenak. Eta edan, Coca-Cola.

Hori gorputzari dagokionez. Buruaz ari bagara, eta Donostiatik irten gabe, Nazioarteko Fisika Batzar handi bat izan da irailean Kursaalen. Zazpi Nobel Sari izan dira kongresuko izarrak. Zazpiak ere urtetan aurrera joandakoak eta hain gaizki jaten den herrialde horietakoak. Seguru adin horretan disfrutatu daitekeen plazerrik handiena izan dutela Alde Zaharreko jatetxeetako gutiziak dastatuz. Horretan zalantzarik ez, baina gure kontura itzuliz, hanburgesak eta sandwichak irentsi beharrean aipatutako agure horiek ume-umetatik euskaldunok bezain sano, natural eta bapo jan izan balute... zer marka ez ote lukete ezarriko Anoeta estadioan? Eta Nobel Saria eskuratzea? Ba gure gazteek Selektibitatea gainditzearen pareko marka izango litzateke, ez gehiago.

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Zer iritzi duzu Ipeñarrietako errotonda berriaren inguruko aferaz?

Arantxa Legaristi

Sarrera, utzi duten moduan, oso gaizki dago. Autoa gehiegi frenatu behar duzu eta eman beharreko buelta handiegia da. Betidanik Urretxutik sartzeko ohitura dudanez, ez dut errotondak Zumarragara bideratzen duen esaterik.

Eneida Mazmela

Zumarragako bidea ixtea ez zait batere ondo iruditzen. Hortik datozen autoak bi herrietara datozenez, bien artean banatu beharko lirateke. Urretxukoa naizenez, ez dit eragiten; baina ez zait ondo iruditzen bidea ixtea.

Begoña Irizar

Antzuolakoa naiz, senitarteko batzuk trena hartzera ekarri ditut, bidea itxita topatu dut eta hesitik aurrera oinez joan behar izan dira. Ez nuen hikamikaren berri. Aurreko batean ere itxita topatu nuen, baina obrengatik zela uste nuen.



Jose Luis Lopez

Ez dakit zeinek daukan arrazoia baina gauzak egin aurretik bi udalek euren artean hitz egin beharko lukete eta ez guk, herritarrok. Horretaz gain, ez dago batere argi bidegorria nondik doan eta RENFErekin arazoak omen daude.

ETXABURU
merenda-lekua

Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Elektrizitatea, M. E.
Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa
Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392
20700 URRETXU

TABERNA
Iburreta
JATETXEA
Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain
Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

Denda alokatu edo saltzen da Antzuolan
Martxan dagoen argazkidenda-bitxitegia
943 78 70 66
635 757 271

BIONA
AROZTEGIA
Altzariak neurrira
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Luis Mari Segurola, kon

Oraindik Zumarragara etorri zela hamar urte bete ez badira ere, dagoeneko bizitza osoa bertako parrokian daramala dirudi. Izan ere, Luis Mari Segurola apaiz urretxuar zumarragatuak bere inguruan giro ona sortzeko erraztasun nabaria du. Zumarragara etorri aurretik Soraluzen, Eibarren eta Eskoriatzan izan zen eta hiru herrietan lagun asko utzi zituen. Eibarren itzal handiko gizona da, frankismo garaian bertako bizilagunen eta langileen eskubideen eta ongizatearen alde tinko borrokatu baitzen.

Zumarragan jaio zinen arren, haurra zinela Urretxura joan zineten bizitzera...

Nire gurasoak Azpeitiko Atzerreka auzotik etorritakoak ziren. Jauregiren etxean jaio nintzen, baina lau hilabete nituela Urretxura joan ginen bizitzera. Neure burua urretxuartzat izan dut beti, baina dagoeneko zumarragar peto-petoa eginda nago.

Txikitatik al zenuen apaiz izateko asmoa?

Monagilo izan nintzen. Don Nikolas zen erretore eta niretzat sekulako erreferentea izan zen. Orduan aurkitu nuen nik sentsibilitate hau eta seminariora joatea erabaki nuen. 11 urterekin joan nintzen bertara. Bost urtetan latina eman nuen, hiru urtetan filosofia eta lautan teologia. Lehen lau urteak Saturraranen eman nituen eta gainontzeko guztiak Donostian. 1961ean ordenatu nintzen.

Nondik nora ibili zara ordutik?

Plaentxira bidali ninduten eta bertan 9 urte egin nituen. Esperientzia polita izan zen. Goizak klaseak ematen pasatzen nituen, gurasoek elizaren babespean sortutako zentro berezi batean. Diruz gaizki zebiltzanez, txintik ere ez nuen kobratzen. Arratsaldea apaiz

promisoa lagun

egintzetan ematen nuen: gazteekin, "Acción Catolica"-ko andreekin... Hitzaldi asko antolatzen genituen eta beti poliziaz inguratuta ibiltzen ginen, hitzaldiak ematera etortzen zirenak ezagun samarrak izaten baitziren.

Plaentxitik nora bidali zintuzten?

1971n Eibarko oso parrokia aipatu batera pasatu ninduten: San Pio parrokiara. Han parroko egin ninduten. Eibarren ere klaseak eman nituen: institutuan, mojen ikastetxean, ikastolan... Oso urte onak izan ziren, konprometituak eta aberasgarriak. Gazte asko zegoen gure parrokian eta sentsibilizazio lan handia egin genuen. Dena den, urte oso politizatuak izan ziren eta gogorrak ere bai. Parroko gehienak langileriarekin oso konprometituak geunden eta espetxera ere horregatik joan ginen. 18 urte eman nituen Eibarren eta bertan utzi genuen izpirituaz pozik nago.

Zer ekimen antolatzen zenituzten?

Ebanjelioaren eta gizartearen inguruko teologia klaseak antolatzen genituen. Askatasuna, duintasuna... jorratzen genituen, teologia konprometitua zen. Gizarte justuagoa bultzatu nahi genuen, erlijioa eta marxismoa nola uztartu ere jorratu genuen, erlijioa eta Euskal Herria... Bestalde, larunbatetan gazteentzako meza bereziak ematen genituen eta inguruko herrietatik ere etortzen zitzaizkigun.

Eibarren zeundela espetxera eraman zintuztela esan duzu, nolatan?

Gutunen bidez, telefonoz... mehatxuak izaten nituen, baina gainontzeko apaizen eta sekularren babes handia nuen. 70eko hamarkadan Ermuako Precicontrol enpresan greba izan zen eta konpentsazio-kutxa egin genuen langileek grebarekin jarraitzeko aukera izan zezaten. Halako batean diru pila bat sartu zen, dirudienez ETAk emana, eta hiru parrokori ETArekin bat eginda egotea leporatu ziguten. Zenbait urtetako espetxe-zigorra ezarri ziguten, baina amnistia heldu zen. Bandres, Peces-Barba... izan ziren gure abokatuak. ETAk guk ezer jakin gabe jarri zuen dirua eta guk, diru hura ikusi bezain pronto, baztertu egin genuen. RNEneta ETAn nengoela esan zuten, baina gezurra zen.

Eibarretik nora joan zinen?

Eibarretik joan aurretik, urtebete eman nuen Santa Agedan gaixoekin: astea bertan pasatzen nuen eta asteburuan parrokiara joaten nintzen. Oso betegarria izan

> "Ia 60 urterekin etorri nintzen eta dagoeneko pixka bat ahulduta nago, baina gustura"

zen. Ondoren, gotzainak Eskoriatzara joateko eskatu zidan eta, Eibarren oso pozik nengoela esan nion arren, joan beharra izan nuen. Bederatzi urte eman nituen bertan, oso gustura.

Handik Zumarragara etorri zinen...

Lehenago gotzainak Donostiara joatea eskaini zidan, baina ez nuen nahi izan. Izan ere, Donostian harremanak ez dira hain sakonak. Ondoren, Zumarragara etortzeko esan zidaten. Ez nuen uste hori eskainiko zidatenik! "Baina... ni Zumarragakoa naiz" esan nien eta Urretxukoa naizela erantzun zidaten. Azkenean, baietz esan nien. Ia 60 urterekin etorri nintzen eta dagoeneko pixka bat ahulduta nago, baina gustura. Jende oso jatorra ikusten dut.

Giro ona duzue, beraz, Zumarragako parrokian.

Komunidade polita dugu, baina badakit hau badoala. Badakit laster apaizik gabe geldituko garela eta beste era bateko erlijiotasuna izango dela. Ez dakigu etorkizuna nolakoa izango den, baina orain arte-

MURUA
Oinetako konponketa
Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa
Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

DOSSE ZUMARRAGA
Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Lanbroa
- Dietetika
- Estetika
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak...
Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

koa bezalakoa ez dela izango argi dago. Gure erronka laikoak formatzea eta etorkizuna euren esku uztea da. Ziur naiz ere gure eliza beste era bateko erakundea izango dela: ez da inposatzailea eta jerarkikoa izango, umilki eta zerbitzurako ibili beharko du. Apaizak izango diren eta nolakoak izango diren... Zure komunitatean gizon on bat ikusten baduzu, Jesukristoren mezuarekin konprometitua, nahiz eta ezkondua egon, zergatik ez ordenatu? Zergatik ez andreak ere ordenatu? Ea gure eliza hau pixka bat irekitzen den... Eliza zerbitzatzeko egina dago, bestela ez du merezi.

Segurolak 1961eko irailaren 13an eman zuen meza berria, Urretxun bertan.

Zeure burua luzaroan ikusten al duzu Zumarragako parroko?

Bikarioari ordezkoan pentsatzeko esaten diot... Gainera, artzapeza naiz eta zonalde osoko egoera begiratu behar dut. Dena den, oraindik urte batzuetan eutsiko diot. Aurrerako bizimodu lasaiagoa izan nahiko nuke, baina zerbitzurako eta laguntzeko ere bai.

Urretxuar bat Zumarragako parroko, adarjotzeren bat jasango zenuen...

Zumarragar peto egin naiz, bihotzez eta sentimenduz. Nire arrebak eta nire lagunek hori entzuten dutenean... Zumarragan, berriz, "ez dakit, ez dakit... urretxuar handia zara zu!" esaten zidaten etorri nintzenean.

Izan ere, garai batean Iparragirreren papera ere bete zenuen...

Bitan egin dut Iparragirrerena Euskal Jaian. Madrilgo San Luis kafetegian *Gernikako Arbola* abestu zuenekoa oroitu genuenean lehen saria lortu genuen. Ur-Gaineko asko parrokiako koruan zeuden eta seminariora bila etorri zitzaizkidan, euren karrozan Iparragirrerena egin eta Gernikako Arbola kanta nezan. Bigarrengoan *Zibilak esan naute* kantatu nuen. Garai hartako askatasun falta zela eta, zeresan handia eman zuen.

Urretxuarra eta, gainera, Athletic-zalea!

Nire erreferentziak Athletic, Orio eta Loroño ziren. Orduan Urretxun Athleticzale mordoxka ginen. Izan ere, haurra nintzenean Reala bigarren mailan izaten zen sarritan eta Athletic euskaldunen espresio berezi gisa hartzen genuen. Ondoren, Realeko hiru jokalari ezkontzea tokatu zait. Bestalde, Guruzeta, Esnaola, Diego eta "Pizo" Gomezen oso laguna naiz. Guruzeta nire monagilo izan zen eta ezkondu egin nuen. "Pizo", berriz, ikasle izan nuen. Arakistainekin ere harreman handia nuen. Guztiek galdetzen zida-

Luis Mari Segurolak Iparragirreren lana egin zuen Urretxuko lehen karroza desfilean, 1959an, Ur-Gain elkarteko lagunek eskatuta.

ten gipuzkoarra izanik nola izan nintekeen Athletic-ekoa eta familian ere ardi beltza naiz, baina...

Futbolzaleaz gain, kantuzalea ere ba omen zara.

Seminarioan solista nintzen eta katedralera joaten ginen kantatzera. Herri askotara ere joaten ginen eta, tartean, Urretxun kantatu nuen. Kantatzen jakitea beti ondo etorri zait, parrandetarako-eta.

"Gure erronka laiko-ak formatzea eta etorkizuna euren esku uztea da"

Harremanak errazago egiteko ere baliagarria da. Denetik pixka bat atsegin dut, baina klasikoa, operak, napolitanak... beti gustatu izan zaizkit. Iparragirrerenak ere bai, noski!

Duela gutxi Txinan izan zara, bidaiazalea ere bazara, beraz.

Lehenengo bidaia handia Brasilera egin nuen. Hilabete eman nuen bertan eta oso aberasgarria izan zen: nire bizitzako egunik ederrenak bertan eman nituela uste dut. Bertako teologoekin egon nintzen eta pobreekin konpromisoa nola bizi zuten ezagutu nuen. Europa erdialdean eta Venezuelan ere izan naiz. Zumarragako parrokiako lagunekin, berriz, Jerusalemen, Istanbulen eta Txinan izan naiz.

Nolatan suertatu da Txinara bidaia?

Bidaia-agentzian oso aukera ona zegoela esan ziguten eta, hasieran gehiegitxo izan zitekeela pentsatu genuen arren, joatea erabaki genuen. 47 lagun izan gara bertan. Oraindik toki asko ditut ezagutzeke, baina nahikoa egin dudala uste dut. Zerutik ikusiko ditut beste guztiak...

Oporrak hartzeko eta bidaiatzeko premian izango zinen, gainera. Izan ere, etxez aldatu beharra ez da gozoa izaten...

Etxe nahiko enblematikoa zen eta ez genuen botatzea nahi, baina azkenean amore eman dugu. Akordio nahiko ona lortu dugula uste dut: etxea botatzearren hiru pisu txiki, Karitasentzat-eta hiru lokal eta garajeak emango dizkigute. Dena den, hemendik aurrera ez da parrokiko etxea izango.

Bestalde, udaberrian Antonio Rey ere joan zen.

Antonio ere urretxuarra zen eta txikitatik ezagutzen nuen. Ni seminariora joan nintzenean, bera oraindik apaizgaia zen. Asko lagundu gintuela gogoratzen dut. Oso jatorra zen. Bizitzaren logika da: joan da eta gu ere hala joango gara.

Herri Aldizkaria
Otamotz
aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Xarmanki
Edergintza
Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium
Labeaga, 2 **URRETXU** ☎ 72 25 13

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico
JavierArratibel
optika
Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak
Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ **943 72 54 84**

ARKUPE TABERNA

Juanjo Bergara, golfaren

Aberatsen kirola bezala ikusia den arren, geroz eta jende gehiago da golfean aritzen dena. Urretxu eta Zumarragan ere badira kirol hau egiten duten hainbat lagun, tartean Juanjo Bergara. Bergarak duela bi urte pasatxo ekin zion golfean jokatzeari eta dagoeneko amateurren arteko hainbat txapelketa irabazi ditu. Bere ustez, golfarekin eskiarekin gertatu zena gertatuko da.

Nolatan hasi zinen golfean jokatzen?

Betidanik egin dut kirola, baina adin batetik aurrera zenbait kiroletan ezin da nahi bezain ondo moldatu. Lehen futbolean, squashean... aritzen nintzen, baina dagoeneko gorputzak ez zidan nahi bezain ondo erantzuten. Txirrindularitza, korrika egitea... aspergarri samarrak iruditzen zaizkit eta Madrilgo lagun batzuei golfa zenbat gustatzen zaien ikusita, kirol hau egitea erabaki nuen. Lagun horietako bat ehiztari amorratua zela eta orain golfean jokatzen duela ikusirik...

Nora jo zenuen?

Andoainera joan nintzen. Izan ere, lehengusu bat bertako Goiburu klubeko bazkidea da eta klub hau nahiko herrikoia da; merkea. Beste klub batzuetan akzioa erosi behar da: Jaizkibelen, esaterako, 24.000 euro ordaindu behar da. Goiburun, berriz, urtean 20.000 pezeta besterik ez da ordaindu behar.

Zer moduz moldatu zinen?

Handicap-a lortu arte ezin da zelaira irten. Hori dela eta, hasieran ikasteko entrenatu besterik ezin da egin. Nire irakaslea Pello Iguaran jokalari profesionala da eta hasi eta lau hilabetera *handicap*-a lortu nuen. Iguaranek nirekin gustura dagoela baina berandu hartu nauela esaten dit.

Zelaira irten ahal izateko *handicap*-a behar dela esan duzu. Zer da hori?

Handicap okerrena 36koa da. Horrek zer esan nahi duen? Normalean golf zelaiek 18 zulo dituzte eta ibilbidea 72 kolperekin osatzeko pentsatuak daude. 36ko *handicap*-a izatea zelaia 72 baino 36 kolpe gehiagotan osatzea da. Nik 13koa dut. Noizbait ibilbideren bat 75 kolpetan osatu izan dut, baina *handicap*-a txapelketatan soilik hobetu daiteke.

Txapelketa asko jokatzen al dituzu?

Ia astebururo txapelketaren bat dago hemen inguruan: Jaizkibelen, Basozabalen, Zarautzen... Nire klubak antolatzen dituen txapelketetan soilik ematen dut izena, bestela eguna alde batetik bestera emango bainuke. Txapelketa hauek amateurren artekoak diren arren, gure artean golferako soilik bizi den jendea ere badago.

> "Nire ustez, hemendik urte batzuetara golfa oso kirol herrikoia izango da"

Zenbat txapelketa irabazi dituzu?

Iaz Gipuzkoako Kopa irabazi nuen eta azken hilabeteotan beste bi txapelketa irabazi ditut, betiere nire *handicap*-ari dagokion kategorian.

Zeure buruari helburuen bat jarri al diozu?

Handicap-a dexente jaisteko esperantza dut, baina irakasleak helburu zehatzik ez jartzeko esaten dit. 0ko *handicap*-era heltzeko irakasten ari zaidala esaten dit, baina dagoeneko 38 urte ditut eta ez dakit helduko naizen. 0 eta 5 artekora heltzea espero dut.

Asko ari al zara hobetzen?

Bi urtetan asko hobetu dut, ez inor baino azkarragoa naizelako, asko jokatzen dudalako baizik. Izan ere, kirol honetan, jokatzeari utziz gero, asko galtzen da. Konfidantza eta konzentrazioa funtsezkoak dira. Kirol askotan aritu naiz eta ez dut hau bezain zaila den kirolik ezagutu.

Horren zaila izan arren, izugarri gustukoa duzue...

Golfean ez dago nori errua bota: ez arerioari, ez taldekideari, ez epaileari... Norberak zelaiaren aurka jokatzen du eta, lehiakorra izanez gero, akabo! Pilotari ondo ematen ikasi bezain pronto, izugarri gozatzen da. Azkenerako, esfortzu handirik gabe sekulako pilotakadak ematen ikasten

Mutua General de Seguros
Jose Luis Balenziaga
Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

aitzindari herrian

da. Gainera, aire irekian egiten da, osasuntsua da, kirola egiten da... Edonork egin ditzake 18 zulo, baina etxera nekatua heltzen zara. Izan ere, 11-12 kilometro egiten dira eta hemengo zelaiak aldapatsuak dira. Bestalde, familian egin daitekeen kirola da. Izan ere, bakoitzak bere *handicap*-a hobetzeko jokatzen du.

Zenbat aldiz jokatzen duzu astean?

Hiru edo lau aldiz gutxienez. Dagoeneko ez dut beste zaletasunik. Jendea erratuta dagoela esan nahi nuke: kirol hau aberatsen kirola dela esaten dute, baina ez da gimnasio batera joatea baino garestiagoa. Eskiatzea baino askoz ere merkeagoa da. Golfarekin eskiarekin gertatu zena gertatuko da: duela 25 urte ia inork ez zuen eskiatzen eta egun jende asko joaten da eskiatzera. Nire ustez, hemendik urte batzuetara golfa oso kirol herrikoia izango da. Egungo arazo bakarra Andoainera joan beharra da, baina Oñatin eta Ordizian ere golf zelaiak egin behar dituzte. Jendea kirol hau egitera animatu nahi nuke.

Materiala ez al da garestia?

Marketinga dela eta, batzuek oso sarritan aldatzen dituzte makilak. Hori dela eta, bigarren eskuko merkatu zabala dago interneten. 25.000 pezetaren truke, bizitza osorako makil onak eros daitezke.

Etxekoek zer esaten dizute?

Gehiegizko zaletasuna dela eta, etxean arazoak dituen jendea ezagutzen dut. Ni asteburuetan ez naiz jokatzera joaten, bestela emaztea hasarretzen baitzait. Neurria hartu behar zaio: nik asteburutan emaztearekin egoten naiz eta astegunetan golfean jokatzeko bi edo hiru ordu izaten saiatzen naiz. Dena den, nire emazteak ere jokatzen hasteko asmoa du.

Emakume askok jokatzen al dute?

Emakumeentzat primerako kirola da. Izan ere, ariketa egiten da, pisua galtzen da, eguzkia hartzen da... Andoainen primeran pasatzen duen laupabost laguneko emakume koadrila dago.

Dirudun jendearen artean ere sekulako arrakasta du...

Lehengo egunean, Arcanges-en nintzela, Alain Prost nire aurretik ari zen. Jende hori normalean zelai onetara joaten da. Clemente, Toshack eta Santos, esaterako, Zarautzera joaten dira. Futbol jokalari ia guztiek jokatzen dute golfean: De Paula, Kodro, Luis Perez... Carlos Garcia Athletic-eko jokalari ohia oso ona da.

Zer esaten dizute lagunek?

Nik golfean jokatzea arraroa iruditzen zaie, aberaskumeen kirola iruditzen baitzaie. "Ez nuen uste hala bukatuko zenuenik" eta halakoak esaten dizkidate, eskerrak niri ere adarra jotzea gustatzen zaidan!

Jokatzen duen herriko jende gehiago ezagutzen al duzu?

Laupabosten berri dut soilik eta ez da harritzekoa, ez baitugu golf zelairik gertu. Nire zaletasunak eromen punttu bat baduela onartzen dut, Andoainera joan-etorria egiteko ordubete behar baitut. Dena den, Oñatiko eta Ordiziako zelaiak egiten dituztenean herriko jende gehiagok probatzeko aukera izango du.





Juan Luis Ayuso

Juan Luis Ayuso Urretxuko Jauregi kalean jaio zen eta Nazionaletan eta Institutuan egin zituen ikasketak. Institutuko lehen promoziokoa da, hain zuzen ere. "Batxilergoko bigarren mailan lanean hasi nintzen eta hirugarrenean ikasketak utzi nituen. 36 urte daramatzat dagoeneko inprentan lanean".

Ayusoren pasioa futbola da, ordea. "Igandetan mezatan piper egiten nuen *kanpito*ra jokatzera joateko. Atezain jokatzen nuen eta Urolak fitxatu ninduen jubenil mailako taldea atera zuenean. Lehen taldean ere jokatu nuen, soldadutzara joan nintzen arte".

Soldadutzatik bueltan, Juan Luisek futbolean jarraitu zuen, baina epaile lanean. "23 urterekin ezkondu eta epaile lanetan hasi nintzen, Bertek animatuta. 2. B mailara igotzeko probak egin behar nituenean, aita hil zitzaidan eta denboraldi batez utzi egin nuen. Gero, marrazain lanetan hasi nintzen. 1. eta 2. mailetarako 40 laguneko taldea hautatu zuten eta tartean ni nengoen. 24 urte eman ditut epaile lanean".

24 urte epaile lanean, 36 inprentan... eta ia bizitza osoa Goierri Kirol Elkartean. "Bazkide izateko 18 urte behar zirenez, karneta faltsifikatu nuen. Lehendakari gazteena izan nintzen, 21 urterekin, eta oraindik hemen nago. Goierri bigarren etxea dut".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbola gustatu izan zait beti eta umetan Eliz-Alden baloiak jasotzen nituen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Epaile lanetik jubilatu nindutenetik, Goierri elkartean egotea da gehien atsegin dudana. Beti dago zer egin.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu, inongo zalantzarik gabe.

-Lehen marrazain, orain Goierriko Itzuliko bidegurutzeetan... beti banderatxoa lagun!

Dirudienez, ezin dut banderatxoa utzi: 24 urte eman nituen epaile lanetan eta orain Goierriko Itzuliko bidegurutze arduraduna naiz.

-Gustuko epailea?

Lopez Nieto. Oraingoen artean Perez Lasa atsegin dut.

-Ezagutu duzun jokalaririk aluena?

Onesimo. Oso jatorra da, baina beti bere gainean egon behar zen.

-Txartelak atera zalea al zara?

Ezagutzen nauenak, badaki ezetz. Laguntzeko prest nago beti.

-Nori aterako zenioke txartel gorria?

Eskilarak direla eta, adineko jende askok ez du dagoeneko Goierrira etortzerik. Arazo hori konpontzeko gogorik ez dutenei aterako nieke txartel gorria.

-Jaietako zein ekitaldi atsegin duzu gehien?

Euskal Jaia asko atsegin dut, baina parranda egiteko nahiago dut koadrilen eguna.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Guztiak.

-Egindako azken oparia?

Goierriko Itzulia bukatu bezain pronto lore sorta oparitu nion emazteari. Izan ere, berari esker egin ahal izan dut egin dudan guztia. Asko zor diot.

-Eta jasotakoa?

Soraluze tabernako Maiderrek Goierriko Itzulian Jokin Ormaetxeari egindako omenaldian ateratako argazkia oparitu zidan koadroan.

-Data bat?

Jon eta Unai semeen jaiotze eguna.

-Neska eta mutil izen bana?

Mutilena Jon eta Unai eta neskena Mila, emaztearena.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara, DV eta Marca.

-Gustuko telebista saioa?

"Natura" ikusten dut gehienbat.

-Bereziki gorroto duzuna?

Gustuko ez dudan saioren bat suertatzen bada, katez aldatu eta kitto.

-Liburu bat?

Schumacher atezain ohiaren "Tarjeta roja".

-Filme bat?

"Alguién voló sobre el nido del cuco".

-Soinu bat?

Armonikarena.

-Usain bat?

Bat ere ez bereziki.

-Janari bat?

Garbantzu-zopa eta menestra.

-Ura ala...

Bazkaltzeko ardo ona eta bazkalostean "La Navarra" patxaran hotza.

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

2005/2006
EUSKARA IKASTAROAK

ESKAINTZA
EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA.

ERRITMOAK
Modulu eta ordutegi zabalak.

Bekak eta laguntzak.

16 urtetik gorakoentzat.

Berri gehiago Udal Euskaltegian.

BULEGO ORDUTEGIA
Goizez: 09:00-13:00 Arratsaldez: 15:00-19:00

SARTU WWW.UDALEUSKALTEGIAK.NET
WEB ORRIAN ETA LORTU MATRIKULA DOAN

matrikula zabalik

24 URTE / 43 ZENTRO

BEKAK / HABEKO DIPLOMAK...

UDAL EUSKALTEGIAK

www.udaleuskaltegiak.net

HABEren dirulaguntzaz.

URRETXU-ZUMARRAGAKO UDAL EUSKALTEGIA
Labeaqa kalea. 40 A (Belaustegi plaza berria)
URRETXU
Tel: 943 72 33 10
Euskaltegi.urzum@udal.gipuzkoa.net

Aretxabaleta | Arrasate | Azpeitia | Beasain | Bergara
Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza
Hernani | Irun | Lasarte-Oria
Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa
Urretxu-Zumarraga | Zarautz

Santa Anastasiak 2005

Ondo pasa jaietan!